



Tokiko altxorak

Erosketa bonuen bidez herriko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu sektoreei hauspoa ematen / 7

Dinabiden, berrikuntza ekosistema sortu nahi du Sakanako garapen agentziak / 2-3

Uema-k, herriak, tokiko produktuak eta euskara altxorra direla ikustarazi nahi du / 5

Iturmendin Kultur Batzordea sortu zuten festetan "guztiendako" ekimenak antolatzeko / 6

IV. Tritoiena mendi lasterketa abuztuaren 30ean jokatu da eta izena ematea zabalik dago / 10

Sakanako Triatloi Campusa uztailearen bigarren hamabostaldian; izena ematea zabalik / 11

Ion Barbarin aktorea: "Guztiarekin egin daiteke umorea; nola egiten duzun da gakoa" / 14

Sakanako Optika
optometriak - kontaktuekin - kontaktuekin
Inbentarioa: elortakoa 10 • 38001 Bilboan - Bilboan
T. 945 563 124 • www.optikazulayano.com

* Kontuak emanen diren momentuan

Doaneko entzumen azterketa

2x1

AUDIFONDETAN

Udako eskaintza berezia

Abuztuak 15 arteko eskaintza. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



Aintzane Iriberrri Berrostegieta Sakanako Garapen Agentziako industria arduraduna.

"Berrikuntza ekosistema bat sortu nahi dugu"

AINTZANE IRIBERRI BERROSTEGIETA SGA-KO INDUSTRIA ARDURADUNA

Eraldaketa digitala ardatz hartuta, Dinabidek berrikuntza arloan lankidetzaz sare bat sortzeko helburua du. Enpresa, ekintzaile eta autonomoei zabalik dago

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Irurtzungo Udalak Inasa zenaren bulego eraikina egokitu du Sakanako Garapen Agentziak industria arloko egitasmo bat koka dezan: Dinabide, eraldaketa digitalerako gunea. Hura Irekiera Egun batekin aurkeztu behar zuten martxoaren 18an, baina COVID-19 gaixotasunak ezinezko egin zuen. Orduan jarri nahi zituzten martxan coworking zerbitzuak. Teknologia ezartzeko elkarlan proiektuak garatzen hasi behar ziren, baita prestakuntza programa ere. Alarma egoeran egon garen bitartean zerbitzuak egokitu behar izan ditu SGAK, eta egoera berriarekin berriro ere Dinabide martxan da.

Manu Aierdik, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Industria Garapenerako kontseilariak, eta Izaskun Goñik, Enpresa Politika, Nazioarteko Proiektzio eta Lanezko zuzendari nagusiak, bertatik bertara ezagutu zuten Dinabide joan den ostiralean. Aierdik Irurtzungo Udala, Sakanako Mankomunitatea, Sakanako Garapen Agentzia eta Sakanako Enpresarien Elkarteak eragileak zoriondu zituen: "eragile guztiak ados jarztearen adibide oso ona da. Epe ertain eta luzerako proiektu bat jarri dute martxan".

Aierdik gaineratu zuenez, "industria testuinguru berri honetan digitalizazioa bai ala bai izanen da. Egin behar da. Eta hurbildu behar zaie enpresa txikiari, ez bakarrik handiei". Kontseilariak esan zuenez, "Inasa zenaren eraikinerako horrelako proiektu bat ekartzea niretako oso baliagarria da. Hemen dagoen aktibitateak, dinamika hori ikusita, departamentuan oso gustura gaude. Pozik emandako dirulaguntza zertan bihurtzen den ikustean".

Labur, zer da eraldaketa digitala? Entitate batek, enpresa batek, eraman behar duen prozesu bat da. Teknologian oinarritutako tresnak erabiltzen ikasi edota gaitu behar du enpresak, bere aktibitateak, produktua, zerbitzua edo egin beharrekoa modu askoz

ere eraginkorragoan egiteko. Prozesua edo bide hori da eraldaketa digitala.

Interesa dago eraldaketa digitalerako. Une zaila da, aspektu guztietan abiatzea kostatzen delako. Oraintxe aukera bat da eraldaketa digitalari bultzada ematea. Konfinamenduak bere garrantzia erakutsi du. Horretara animatzen ditugu.

Dinabiden coworking gunea dago. Zer da hori?

Lan egiteko espazio bat da 200 metro karratukoa. Baina elkarrekin egon beharreko lan espazio bat da. Hau da, hemen 16 lanpostu ditugu eta edozein enpresa, ekintzaile edo autonomo etorri daiteke hona bere garapenerako lan egiteko espazio baten bila. Coworking desberdina da, teknologikoa delako. Horrek zer esan nahi du? Beste aldean laborategi bat eta espazio ireki bat daudela prest, teknologiak erabili edo beraien makinak edo prototipoak garatzeko. SGAK honekin bilatzen duena da enpresak edo entitateak pixka bat laguntzea eraldaketa digitalerako erlaziora daukaten proiektuak aurrera eramaten.

Pandemia dela eta jarduna eten zen, baina alarma egoeratik aterata garenean, berriro hasi da martxan. Lanpostuen arteko distantziak mantentzen dira, eta garbiketako protokoloak egokitu daude. Beraz, erabilgarri dago eta edozeinek bere proiektua aurkeztu dezake coworking-ean bere lekua izateko. Horretarako, SGAKen www.sakanagaratzen.com web orrian informazioa du. Guri 647 864 239 telefonora hots egin diezagukete edo info@sakanagaratzen.com e-posta idatzi. Bestela, Dinabidek bere web orria du: www.dinabide.com. Informazioaz aparte, haren bidez bisita erreserba daiteke, hona etorri eta gurekin hitz egiteko.

Probetan ari diren enpresetako langileen ondoan, esaterako, litekeena da proiektua lantzen ari den ingeniariak ikasle bat egotea?

Hori da. Guk berrikuntza ekosistema bat sortzea nahi dugu. Ohitu behar gara kolaboratzen,



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Goian: Iker Manterola, Mikel Irijalba, Mikel Arbelo eta Aitor Larraza. Behean: Izaskun Goñi, Manu Aierdi eta Aintzane Iriberrri.

espazioa partekatzen, gaitasunak konpartitzen eta beharrak asetzen. Eta bata bestearekin. Hemen hori bilatzen da: espazio komun bat proiektu horiek garatzeko, daukaten beharrei erantzunez, baina baita beraien artean proiektuak eraikiz ere.

16 postuez aparte, gelak ere badi-tu lankidetzak guneak.

20 pertsonendako prestakuntza gela bat dago. Irailtik aurrera bertan prestakuntza ikastaroak ematen hasiko gara. Nafarroako Industria Fundazioa izanen da emanen dituenak. Prestakuntzan gure laguntzaileak izanen dira. Beste bilera gela bat dago, pantailarekin eta aurkezpenak egiteko. Nahiz eta espazio komunak izan, edozein coworkerrek prestakuntza egin edo jaso nahi badu, edo bileraren bat izan nahi badu, espazio itxiak ere badaude.

Bestaldean laborategia, gailu pila batekin hornituta. Lankidetzak gunean daudenak ere erabil ditzakete?

Hori da guretako interesgarriena. Proiektu ideia daukan enpresa, ekintzaile edo autonomoak hura garatzeko aukera du laborategiko tresnak erabili ahal ditu: eranste fabrikazioko makinak, kolaborazio robota, errealitate areagotuko betaurrekoak... Esaterako, eskaner bidezko eskaneatzea erabil dezake, gero prototipoak egiteko, edo robotaren aplikazio bat garatzeko, edo betaurrekoekin aplikazioaren bat

garatzeko. Hori guztia eskura dauka coworkingera etortzen bada.

Beraz, ordenagailutik atera, pieza sortu, eskuekin ukitu... Baloratze-ko eta probatzeko aukera dago...

Guretako garrantzitsuena da ikaste horrek edo garapen prozesu horrek izan behar duela oso erreala, oso fisikoa. Horretan asmatu dugula uste dut. Probatze horrek proiektuei ematen dien kapazitatea eta ematen dien eboluzioa oso onuragarria izan daiteke garapen proiektuei begira. Bai berrikuntza prozesuetan, bai produktu berriak garatzen. Hori da desberdintasuna. Guretako training hori, probatze hori, benetan garrantzitsu da.

Dinabiden berrikuntza ekosistema bat osatu nahi duzue. Zertan da gaur egun?

Pittea-pittea goaz. Dinabide fisikoki aurten hasi bada ere, estrategia aldetik, proiektua eraikitzen, bi urte daramatzagu eta gure harreman sarea nahiko handia da. Alde batetik, coworkerrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen inguruan, hitzarmenak CEINekin ekintzaileendako, ANELEkin koo-

"PROBATZEKO AUKERAK PROIEKTUEI EMANEN DIENA OSO ONURAGARRIA IZAN DAITEKE"

peratibendako eta Cederna-Garalurrekin autoenplegu proiektuendako. Aholkularitza eskaintzen diete. Sodenarekin hitzarmena dugu finantziarioa behar duten proiektuei begira.

Aholkulariak ere baditugu: 3Dbide enpresak teknologian ezagutza handia dauka, eta teknologia hori enpresen beharretara jartzen dute; Nodo 4.0 gaitzailea; prestakuntzarako fundazioarekin hitzarmena dugu; AINEk eta Nafar-Lansarek ere eman izan dituzte ikastaroak hemen eta teknologia zentroekin erlazioa dugu, Naitek edo Bartzelonako 3D factory hub-a.

Zerbitzu eta zentro horiek guztiak enpresen beharretara jartzen ditugu. Guk ezagutzen ditugu Sakanako enpresen beharrak eta horiekin ere proiektuak eraikitzen ari gara. Sakanako enpresa dexentek eranste fabrikaziora egiten dituzte beraien proiektuak. Baina, bereziki Nafarroako Industria Fundazioak aukera eman digu Nafarroako beste enpresa batzuekin ere elkarlanean aritzeko. Prestakuntza zentroekin eta unibertsitateekin ere lanke-ta egiten dugu. Hor gabiltza.

Zenbat eta ekosistema aberatsagoa izan orduan eta emaitza hobek?

Hori da. Beti ikusi da errazagoa dela arrakasta lortzea berrikuntza prozesuetan ikuspuntu, gaitasun edo trebetasun desberdinak dituzten pertsonak elkartzen direnean.

Gure asmoa hori da: prestakuntza zentroak, enpresak, berrikuntza zentroak eta ezagutza daukatenak ekosistema horren parte izatea, gure dinamizatzailerak eginda. Azkenean, guztiondako onuragarria izan daitekeen eraldaketa prozesu horri erantzutea. Gure ekosistema gero eta handiagoa da.

Gailuak

Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuaren finantzazioarekin erosi dira Dinabideko gailuak. 200.000 euroko inbertsioarekin eranste fabrikaziorako unitate batez hornitu zuen SGAK. Honako gailuak ditu: urtze bidezko 3Dko bi inprimagailu (Ultimaker S5, Markforged II) eta hautsarekin lan egiten duen beste semiindustrial bat (HP multiyet fusion), 360 graduko eskanerra, kolaborazio robota eta errealitate areagotuko betaurrekoak. Hori guztia prototipoak diseinatzea errazteko eta eskala txikian fabrikatzeko dira, testatzeko.

Nafarroako Gobernuak iragarri duen Iris plataforma birtualeko parte-hartzailea da Dinabide. Zer da hori?

Europak ezagutza sor dezaketen kontinenteko berrikuntza zentro guztiak konektatu nahi du, eta sare bat sortu nahi ditu, beraien artean informazioa eta ezagutza trukatu dezaten. Nafarroako Gobernuak Iris plataforma birtuala egin du, herrialdeko zentro horien guztien koordinazio sistema. Hor sartu dute Dinabide, test before investing (inbertitu aurreko testa) laborategia bezala. Berrikuntza Digitalaren Poloaren plataforma birtual horretara bideratu gaituzte, enpresetan testa egiteko eta industrian dauden beharren teknologia ezarpenei begira aktore gisa eragiteko.

Dinabideri Nafarroako eta Europako atek zabaltzen zaizkiola esan nahi du?

Horixe. Proposamen bat da. Nafarroatik estatutura joan behar da eta gero estatuak Europan onartzen duen azpiegitura da. Lortuko bagenu, Nafarroako Gobernuak eta, bereziki, Dinabidek, finantziarioa lortuko luke proiektuak aurrera ateratzeko. Aurrera goazen heinean, bide onean goazela ikusten ari gara. Baina interesgarriena da Europako beste berrikuntza zentroekin lotura zuzena izanen genukeela, ezagutza transferentzia hori egiteko: gure besteengandik ikastea eta besteek gure irakasteko. **Programan egote hutsak esan nahi du Dinabide badela zerbait?**

Hori da politena, kontuan hartu gaituztela, eta bide honetan guztian egin dugun ahalegina haiek ere ulertu dutela, ikusi dutela baliagarria dela, eta gure proiektuei erantzuteko leku bat eman digutela.

Momentuz SGAK kudeatzen du Dinabide.

SGAren helburu batzuei erantzuten dien proiektua da Dinabide oraingoz eta, ondorioz, SGA da lege entitatea. Baina zein tamaina hartzen ari den eta zein norabide eman nahi diogun ikusirik, esaterako, proiektuetan bazkide gisa parte hartzea, legeizaera behar du. Horrela, kudeaketa arinagoa litzateke eta finantziario gehiagorako aukera genuke. Gainera, arlo publikoaz aparte, pribatua (enpresak) ere ordezkaturik legoke, ez soilik bazkide kolaboratzaile moduan, Dinabide proiektuaren parte gisa baizik.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Ura bezalakoa

Aurreko egunean, bizi dugun birus krisia dela eta, aditu bati entzun nion distopia bat bizitzen ari garela. Hitz ezezaguna, normala ez den zer edo zer bezala ulertu nuen, baina argitzeko hiztegiara jota, esanahi abstraktu samarra aurkitu nuen, hau da, *giza alienazioa eragiten duten ezaugarri negatiboak dituen etorkizuneko gizartearen fikziozko irudikapena*. Alegia, zientzia fikzioan ikusiko litzatekeen modura, pertsonok, modu negatiboan, geure buruarekiko kontrola galdu dugu eta, berezko sena galduta, arrotz jokatzeko dugu. Egia da bizi dugun honek osagarri guztiak izan badituela, hots, konfinamenduak, polizia kontrola, birus hilgarria, muturrekoak eraman beharra, elkar ukitu ezina eta tarte zehaztuak, komertzioak itxita, langabezia eta abar. Literaturako fikzioarekin alderatuta, beharbada, desberdintasun bakarra izanen da horren guztiaren atzean ez dagoela botere edo egitura maltzur bat horretara eraman gaituena. Nahiz eta konspirazio teoriak falta ez diren, ematen du osasun krisia baino ez dela.

Nolanahi ere, argi dago gure gizarte hankaz gora jarri duela eta aurretik pentsaezinak ziren agertokietara eramaten gaituela, etenik gabe. Aldatu da lan egiteko era, bidaiatzeko, kirol edo kultur ekitaldirik gabe, udako herrietako bestarik gabe eta abar. Egoera horrek, jakina, maila pertsonalean makina bat pertsonengan eragin handia izan du.

Hala ere, denon esku dago egoera apokaliptiko honetatik ateratzea. Izan ere, erakundeek hainbat plan zehaztuko dituzte, baina horrelako egoeretan garrantzitsua da pertsona bakoitzak nola bizi duen prozesu hau, sormenez eta ekimenez. Horregatik, horrelakoetan, 2008. urteko krisian geundela lankide batek txantxetan esaten zidan esaldia gogoan izaten dut, alegia, *be water, my friend* (nire laguna, izan zaitez ura), Bruce Leek bere garaian sonatu bihurtu zuena. Garrantzitsua baita egoera berrietara egokitzeko malgutasuna izatea, dena etengabe aldatzen joaten da eta.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

#SOSPresoakCovid19

SARE, ETXERAT, SALHAKETA NAFARROA ETA ALTSASU GURASOAK

Maiatzaren 19an presoek eskubideak eta, zehazkiago, osasunerako eta duintasunerako eskubideak bermatzeko neurriak ezartzeko beharra azaldu genuen #SOSPresoakCovid19 plataformatik. Nafarroako gizarteak asko babestu ditu proposamen horiek, eta estatu espainiar osoan giza eskubideen aldeko hainbat talde eta elkarteekin batera aldarrikatu ditugu.

Une hartan agerian geratu zen beharrezkoa dela kartzelako deskonfinamendua askatasunean dauden pertsonen aplikatzen zaizkien irizpide bereberkin aplikatzea. Hala ere, gaur egun, oraindik ere bi senide baino gehiago ezin dira bisitaratu sartu, ez dira berriz hasi aurrez aurreko komunikazioak, oraindik

ere mantentzen dira nahitaezko koarentenak irteera baimenaren ondoren espetxera itzultzean... Beharrezkoa da muga eguna jartzea presoek eskubideak erabat urratzen dituzten egoera hauei.

Espainiako Gobernuak ez ditu oraindik aplikatu nazioarteko erakundeek gomendioak: COVID-19aren aurrean bereziki ahulak diren kolektiboetako pertsonak kartzelatik atera beharko dira, hala nola 65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoak dituztenak, haurdun dauden emakumeak, edota haiekin batera seme-alabak espetxean dituzten emakumeak.

Ezbairik gabe, pandemia honek presoek jasaten duten zaurgarritasun erantsia azaleratu du eta agerian utzi du presoek eta haien senideen eskubideak urratu egin

direla. Esan beharra dago urratze hori are handiagoa izan dela kondena haien errotoze tokitik urrutituetzen ari diren presoentzat, 3 hilabete baino gehiago egon baitira beraien familiekin komunikatu gabe. Hori dela eta, ezin da ahaztu Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak sistematikoki urratzen duela presoek beren errotoze tokian zigorra betetzeko duten eskubidea.

Horregatik guztiagatik, alarma egoera amaitu den une honetan, berriro ere Madrilgo eta Nafarroako gobernuen interpellazioa egiten diegu, bi exekutiboak, bakoitza bere eremutik, lanean has daitezten eta eskatzen ari garen neurriak har ditzaten lehenbailehen, hala nola preso guztiak familia edo gizarte errotoze duten espetxetara eramatea.

Ezin dugu COVID-19aren berragertze baten eraginez berriro ere presoek eskubideak urratuak izatera arte itxaron.



DUELA 25 URTE...



Etxarri Aranazko abesbatza txapel-dun

San Vicente de la Barquerako XXVIII. Cancion Marinera txapelketan lehen saria, Urrezko Lina Marina, eskuratu zuen Etxarri Aranazko abesbatzak. Saria 200.000 pezeta izan zen (1.202 euro). Igor Ijurra Fernandez zuzendariak zuzendu zuen 51 ahotsez osatutako abesbatza. Kantabriako herrira 2013an bueltatu zen abesbatza. Bigarren saria eta marinel obraren interpretazio onenari lehen saria ekarri zituen.



OBJEKTIBOTIK

DENBORALDIKO SAILKAPENA	
1.	rOmn 2.654,30
2.	Aner 2.613,31
3.	Supro 2.557,74
4.	Koko Garaile 2.528,80
5.	Sarraste 2.495,95
6.	Iñaki 2.495,37
7.	Haizea 2.491,16
8.	Garazi 2.465,72
9.	Iñaki 2.462,58
10.	Bargogain 2.441,33

Irabazlea jar dadila gurekin harremanetan
admin@guaixe.eus | 948 564 275

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gure altxorrak: herria, produktuak eta hizkuntza

Udalerrri euskaldunen aberastasuna bertakoei eta bisitariei ikustarazi eta aldarrikatzeko Bertatik Bertara kanpaina martxan du UEMAK. Dozena bat ostalaritza establezimenduk bat egin dute

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Uda, oporrrak, bidaiak eta atsedeen egunak antolatzeko moduak erabat aldatu dizkigu COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun larrialdiak. Atzerrira joateko baino gehiago bertan gelditzeko aukera da askoren hautua. Hori jakinik, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) 61 herrik (tartean Arbizu eta Etxarri Aranatz) Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Garapen Agentziak bat egin dute Bertatik Bertara kanpainarekin. Haren bidez bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenaren eskutik zenbat gozatu daitekeen erakutsi nahi diete kanpainaren sustatzaileek herritarrei eta bisitariei.

Ekimena udan abiarazi dute, turismo eskaintzan bertako altxorrek nabarmenduz, euskaren erabileratik hasita. Arbizuko eta Etxarri Aranatzko dozena bat establezimenduk bat egin dute ekimenarekin. Arbizun kanpinak, landetxeak, etxebizitza turistikoak eta hiru jatetxe eta taberneak, eta Etxarri Aranatzeko kanpinak, apartamentu turistiko batek eta lau jatetxeak eta taberneak. Guztiek Bertatik Bertara kanpainaren berri ematen duten kartelak eta mahai gainekoak jaso dituzte.

Zabalkunderako material horietan herritarrek eta bisitariak honakoa irakurtzeko aukera izanen dute: "gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz gozatzera ere". Izan ere, kanpainaren bidez udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi dute, herritarrek eta bisitariak sentsibilizatu. Arbizun eta Etxarri Aranatzeko barna ere kanpainako kartelak jarri dituzte.



Etxarri Aranatzko kanpineko kideak kanpainako kartelarekin. UTZITAKOIA

"ESTUKI LOTUTA DAUDE HERRIETAKO DENDAK, ELIKAGAIAK, LEHEN SEKTOREA ETA KULTURA"

Gehiago

Osasun larrialdiak eta konfinamenduak ekonomikoki zerbitzu sektorea gogor kolpatu duenez, udalek herriko denden aldeko apustua egiteko eskatu diete herritarrei. UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanoren iritziz, "Bertatik Bertara kanpaina eskaera horren osagarri da. Garrantzitsua da sinistea gure herrien bertako garapena herriko ekonomian eta herriari arnasa ematen dioten sektoreetan dagoela".

Horregatik, kanpainak hizkuntzari ez ezik, herriei, bere txokoei eta produktuei erreparatu die, "estuki lotuta baitaude herrietako dendak, bertako elikagaiak, lehen sektorearen garrantzia, bertako kultura eta bertako hedabideak ere". UEMAKo lehendakariaren hitzetan, "horiek ezagutaraztea eta udalei bide hori egiten laguntzea ere bada kanpainaren hurrengo faserako aurreikusita daukaguna".

tarrek eta zerbitzu sektoreak hori ulertzea, gero bisitariei erakusteko eta koherentziaz aritzeko".

Gehiago

Udazkenetik aurrera beste pauso bat egin nahi du UEMAK, udalerrri euskaldunen garapenaren inguruan azken urteotan abiarazitako ildoaren baitan. Horregatik, UEMAK udalei tokikoa laguntzeko moduak zehaztuko ditu, herrietan bertako produktuak eta elikagaiak, lehen sektorea laguntzeko ekimenak edota ekonomia sozial eraldatzailearen egitasmoak aurrera egin dezaten. Lazkanok esana: "gure herriez eta gure hizkuntzaz gozatzeko gonbidapena egitearekin batera, gure herriei bizirik eusteko bertako elikagaiak eta produktuak ere giltzarria direla nabarmendu nahi dugu, eta guztion hausnarketa eta ohitura aldaketak bultzatu. Zenbait herritan ekimen eredugarriak abiarazi dituzte azken urteotan ildo horretan, eta horiek ezagutaraztea eta udalei bide hori egiten laguntzea ere bada kanpainaren hurrengo faserako aurreikusita daukaguna".

Familiendako mahai joko birtuala sortu du Era-k

'Jolasean Blai' euskaraz ikasten duten 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako plataforma da

SAKANA

Haurrak euskaraz hazi eta hezteko ahaleginean ari diren gurasoei hainbat gomendio eta laguntza ematen dizkie www.era.eus webguneak (Era). Online dagoen material ugaria gurasoen eskura jartzen du Era, egoki sailkatuta, familiendako txukun, eroso eta erabilgarria izan dadin. Era-ren sustatzaileek norabide horretan beste pauso bat eman dute Jolasean Blai mahai joko birtualarekin. Finean, onlineko kultur proposamenen hautaketa bat da, oporretarako dinamika bat proposatzen duena: Altxorraren uhartean barrena ibilbide bat egitea. Haurrak bakarrik edo gurasoekin aritu daitezke.

Koronabirusak eragindako larrialdiaren ondorioz, Era ekimena hartu zuen gurasoei egunero eskaintza ezberdin, kalitatezko, eta erakargarri bat egiteko. Hala, martxoaren 18tik maiatzaren 31ra, egunero etxean gozatzeko kultur proposamen bana hautatu zen kulturagileek online eskuragarri jarri duten horietatik: literatura, musika, jolasak, ikus entzunezkoak, aplikazioak... Jolasean Blai egindako bilketa lanaren ondorioz

sortu da, horrela kalitatezko kultur proposamen horiek modu erakargarri batean aurkezten zaizkio familiari.

Dinamika

Altxorraren uharteko plano dute jokalariek, hainbat lauki dituen ibilbideaz osatua. Gurasoek eta haurrek nahi duten maiztasunarekin (egunero, bi egunetik behin edo egoki jotzen dutenean), laukitxo bat aurrera egin beharko dute. Lauki bakoitzean kultur proposamen bat edo bi daude. Bi daudenen kasuetan, iraupen motzeko bat eta iraupen luzeko beste bat daude. Era-ko sustatzaileek gurasoei proposatu diete haurrekin gozatzeko bideo ipuinez, emanaldiez (zinema, antzerkia, musikalak...), bideoklipez, App-ek edota sorpresa kutzaz.

Mahai joko birtualak aukera ematen du mapa txuri-beltzean deskargatu eta inprimatzeko, harekin egongelan edo sukaldeko mahaian jolastu ahal izateko, ibilbidea koloreztatzen... Era-koek kultur sortzaileen lana aitortu dute: "haien lanari esker familiek aukera aparta dute seme-alaben gozamenaren etxean euskaraz elikatzen".




UZTAILAK 11, LARUNBATA
17:00-19:00
 (IRRATIKO KONEXIOA 16:45EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ



107.3 FM
beleixe
ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Miriam Goikoetxea Esquisabel Iturmendiko Kultur Batzordeko kidea.

Herriari bizitza ematen

Boluntario talde batek kultur batzordearen erreleboa hartu zuen, eta Iturmendiko ospakizunak antolatzearen ardura. Hilaren 16tik aurrera Karmengo festak ospatzekoak ziren iturmendiarrak, baina, lehenengo aldiz, festak bertan behera geldituko dira

Erkuden Ruiz Barroso ITURMENDI
Miriam Goikoetxea Esquisabel iturmendiarrak Kultur Batzordeko kidea da. Batzordea baino, festak eta herrian "gauzak" antolatzeaz arduratzen den taldeko kidea da. "Herriko boluntario talde bat gara. Herrian zerbait izan dezagun aritzen gara". Herritar guztien dako ekimenak antolatzen dituzte. "Pena eta amorrua" ematen badie ere, aurtan ez dituzte festak ospatuko, eta ez dute ekimen sinbolikorik antolatuko ere. Maiatza ere ez zuten jaiki, eta plaza hutsik ikusi ondoren "ez zara ohitzen, baina onartzen" duela esan du Goikoetxeak.

Guraso talde batek, jubilatuen elkarteak, gaztetxeak eta Iturmendiko Aritzaga eta Aitzkozar elkarteak parte hartzen dute Kultur Batzordean. "Inauteriak, festak eta abarrak antolatzen ditugu. Festetan hurrendako gau-

zak izateko lan egiten dugu, jubilatuek beraiendako gauzak antolatzen dituzte, gazteek kontzertuak eta ekimenak antolatzen dituzte...". Herriari bizitza emateko eta "kalera ateratzera motibatze" lana egiten du batzordeak.

Kultur taldea

"Lehen bazegoen udaleko kultur batzordea, benetako batzordea zena, baina denbora pila bat egon zen eta aspertu ziren. Erreleboa behar zuten". Baina inork ez zuen batzordean parte hartu nahi. "Ez da lan handia, baina bai erantzukizun pixka bat eskatzen duena.

"ADINEKO JENDEAK EZ DU GOGORATZEN FESTAK BERTAN BEHERA INOIZ GELDITU IZANA"

Festak iristean dena antolatu behar izatea, eta, gainera, beti dago norbait esaten duena zergatik antolatu duzuen hau eta ez bestea, berari ez zaiola hori gustatzen...". Herria, beraz, antolakuntzarik gabe gelditu zen. "Jende talde bat animatu ginen. Ahal genuen heinean egingo genuela pentsatu genuen. Gogotsu aritzen gara, asko jakin gabe". Taldean ez direla asko esan du Goikoetxeak, eta kultur taldean parte hartzera gonbidatu ditu iturmendiarrak. "Ahalik eta jende gehien etortzen bada, ideia gehiago eta berriak izango ditugu". Hala ere, gustura daudela onartu du. "Taldea bakoitza ordezkatuta dago eta horrela, gutxi gorabehera, herri osoa dago islatuta".

Udako festak antolatu beharko zituzten orain, baina aurtan, Sakanako herri guztietan bezala, ez dituzte festak ospatuko. "Egoera

arraroa zaila eta arraroa da guttiendako, eta beldurra ematen du". Hortaz, udalak eta batzordeak "ezer ez" antolatzea erabaki dute. "Ez da momentua. Egokitu zaigun egoera da". Goikoetxeak herriko adineko jendearekin hitz egin du, eta komentatzen dutenez, "ez dute gogoan herriko festak aurretik bertan behera utzi izana. Inoiz ez. 1936ko gerran ere ez ziren gelditu. Batzuek diote inauteriak gerra garaian eten zirela, baina festak ez".

Lehenengo aldiz ez dituzte Karmengo festak ospatuko. Karmen Iturmendiko zaindaria da. Lehen festek hiru egun bakarrik irauten zutela esan du Goikoetxeak: Karmengo eguna, uztailearen 16an; hurrengo egunean, uztailearen 17an, mozo-aren eguna ospatzen zuten; eta, azkenengo egunean, uztailearen 18an, Santa Marinara igotzen ziren. "Hor bukatzen ziren. Baina gero bi egun gehiago jarri ziren: haurraren eguna eta jubilatuen eguna. Festa egun gehiago izateko". Gaur egun, oraindik mantentzen dira uztailearen 16an egun handia izatea eta 18an Santa Marinara igotzea.

"Saiatzen gara beti betikoa egiten. Egia esan, lehen zegoen kultur batzordeak oso ongi egiten zuen, eta oso ongi antolatuta zeuden festak. Geu ere antzekoa egiten saiatzen gara". Goikoetxeak azaldu duenez, haien arazo nagusia udalaren aurrekontu "txikia" da. "Iturmendi herri txikia da eta ez dago industriarik, ez tabernarik... orduan, udalak aurrekontu oso txikia izan ohi du. Dagoenarekin moldatzen gara". Diru faltari sormenaren bidez egiten diote aurre: "Modu boluntarioan egiten ditugu gauzak. Hurrendako gauza handiak ekarri ezin baditugu, guk antolatzen ditugu jokoak; jubilatuek haien gauzak antolatzen dituzte, eta gaztetxeak izugarri ematen dute herrian, gauza asko egiten dituzte". Festa oso herrikoia dira, "familia artekoak".

Santa Marina igotzearekin batera, Iturmendiko festetan falta ez den beste ohitura bat auzatea da. "Egun bakoitzean herriko talde batek egiten du. Guztion artean saiatzen gara zerbait ematen". Egun batean behoko elkarteak ematen du auzatea, hurrengoan goiko elkarteak, hurrengoan biltokiak... "Aurrekontu txikiari buelta emateko modu bat da". Gainera, ardoaren banaketa auzolanaren bidez egiten dute. "Urtean zehar egiten ditugun auzolanetan, batzuei festetan ardoa banatzea

tokatzen zaie". Bakoitzak zerbait ematen du.

Iturmendiko festak "oso politak" direla uste du Goikoetxeak. "Gu oso gustura egoten gara". Batzordearen helburua betetzen dela esan du: "Jendeak parte hartzen du eta herriari bizitza ematen diogu".

Maiatzarik ez

"Nik oso gaizki pasa nuen maiatzaren leian, Maiatza jartzen dugun egunean". Goikoetxea plaza gogoa eman ziola aitortu du. "Sentsazio oso arraroa izan zen". Ondoren, maiatzaren 8an, San Miguel eguna ospatu behar zuten, baina horretan ere ez zen ospakizunik egon. "Maiatzagatik pixka bat ukituta nengoenez... ez zara ohitzen, baina nolabait onartzen duzu. Orduan, orain festak etorriko dira, eta ez ditugula ospatuko onartu beharko dugu".

Maiatza da Goikoetxeari herriko ospakizunetatik gehien gustatzen zaiona. "Sinbolismo handia du". Etxarri Aranatzaren eta Bakaikun mendian altxatzen dute, eta Iturmendin herriko plazan altxatzen dute zuhaitza; "herriaren erdian, etxeekin eta... oso polita da". Maiatzaren ohitura urrunetik datorrela azaldu du Goikoetxeak, eta kintoekin lotura du. "Kintoek plazan altxatuko zen zuhaitza aukeratzen zuten, zuritzen zuten, eta, ondoren, behin maiatza pasata, egur hori saltzen zuten". Soldaduskara joan behar zirenez, egur horren salmentarekin familiak laguntzen zituzten. Maiatza, beraz, kintoena zen. "Oraindik ere kintoek aukeratzen dute zuhaitza".

Plazaren erdian maiatza dagoe-la, San Miguel festak ospatzen dituzte Iturmendin. "Betidanik maiatzean ospatu izan dugu San Miguel. Askotan esaten digute San Miguel irailan dela, ea zergatik ospatzen dugun maiatzean, baina ez da asmatutako zerbait. Guk beti maiatzean ospatu izan dugu".

Abuztuaren bukaera jubilatuek gari jotzearen eguna antolatzen dutela esan du Goikoetxeak. "Gari jotzaile bat zaharberritu zuten, eta tradizioak berreskuratzeko asmoarekin gari jotzea lehen bezala egiten dute egun horretan".

Uda honetan, aldiz, koronabirusaregatik ez dute ezer antolatuko. "Aurrekoan elkartu ginen eta ezer ez egitea erabaki genuen". Udazken aldera gauzak baretzea espero dute: "Ikusten joango gara. Neurrien eta arauen arabera izango da".

Erosketa bonuak banatzen hasi dira

Merkataritzako establezimendu txiki guztiek eman dezakete izena www.alsasu.eus webgunearen bidez, 13ra arte. Altsasuko dendetan gastatzeko txartelak lortia kultur gunean jaso ditzakete herritarrek hilaren 31ra arte, 09:00etatik 13:00etara

ALTSASU

COVID-19 gaixotasunak eragin-dako osasun krisiak merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduak itxiarazi zituen. Horren ondorioz, sektore horietako establezimenduek galerak izan zituzten. Eragin horiek kontuan hartuta, Altsasuko merkataritza eta ostalaritza babes-teko eta sustatzeko helburuz, Altsasuko Udalak eta Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Haren helburua da denda txikietan, ostalaritzan eta beste zerbitzu batzuetan trukatu daitezkeen kontsumo bonuak sortzea. Eki-menak aurrera egin dezan Altsasuko Udalak 50.000 euro bideratuko ditu.

Oso gertu leloa izanen duen kanpainara ADEkoak ez diren establezimenduek ere atxiki daitezke. Kontsumo bonuen kanpainan onartuko diren jarduerak honakoak dira: ile apaindegia, estetika zentroa, argazki estudioa, jatetxea, taberna, ostatua, oinetakoak konpontzea, arropak konpontzea, tatuaje zentroa, markoztatze zerbitzua, akademia, kirol zentroa, bidaiaria agentzia, higiezin zerbitzua, masajista eta fisioterapia. Baldintza bakarra da establezimenduek ezin dutela 300 metro karratu baino gehiago izan. Kontsumo bonuen kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduek astelehenera arte eman dezakete izena Altsasuko Udalaren webgunean (<https://labureus/8rJVS9>) dagoen galdetegia betez.

Bonuen eskuratzearaz

Udalak eta ADEk hitzartutakoaren arabera, lortia kultur guneko harreraren hilaren 31ra arte (09:00etatik 13:00etara) kontsumo bonuak banatuko dira. Guztira 4.600 bonu banatuko dira. Herritar bakoitzak haietako bi eskuratzeko aukera izanen du, doan. Kontrola izateko, bonuak esku-



lortia kultur gunean jaso daitezke bonuak.

BONUA 40 EURO EDO GEHIAGOKO EROSKETAK EGITEAN ERABIL DAITEKE, 10EKO DESKONTUA DA

ratu dituztenen zerrenda osatu-ko da.

Bonu bakoitzak 30 euro balio du. Establezimenduetan 40 euroko edo gehiagoko erosketa egin behar da, eta kontsumo bonua aurkeztuta, 10 euroko beherapena egingen diote bezeroari. Beherapen hori da udalak finantzatzeko duena. Bonuak atxikitako establezimenduetan gastatzeko aukera izanen da irailaren 30era arte.

Bonua erabiltzeko baldintzen artean dago bere zenbatekoa osorik agortu behar dela. Horretaz aparte, bonuak ezin izanen dira eskudirutan trukatu eta ezin da bonuari dagokion dirua itzultzea eskatu. Erositakoa itzultzen bada, establezimenduak diru kopuru osoa edo bale bat emanen dio bezeroari. Azkenik, bonua galduz gero, udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko.

Kontsumo bonuen kanpainaren berri emateko ADEk 5.000 esku-erri banatuko ditu. Ekimenarekin bat egiten duten establezimenduek kanpainaren kartela izanen dute erakuslehoan. Haietara sartzen direnak kanpainari buruzko informazioa jasotzeko aukera izanen dute. Kanpainatik salbuetsita daude tabakoa, loteria eta apustuak.

Bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena ADEk iradokitakoari jarraituz egin dela jakinarazi du Javier Ollo Martinez alkateak. Elkartearen jakitun dira Altsasukoak ez diren beste bezero batzuk ere badituztela, horregatik, altsasuarrak ez direnek ere eskuratu ditzakete kontsumo bonuak. Baldintza bakarra adinez nagusia izatea da.

ADE

Altsasuko Dendarien Elkarte herriko 36 establezimenduren elkargunea da, baina herrian 120 bat daude. Elkartetik jakinarazi dutenez, kanpainak 184.000 euroko salmenta bolumena ekarriko du. Haietako 38.640 euro Nafarroako Gobernuak BEZ bidez jasoko ditu, dirua herrialdean geldituz.



Agur egunean gazteak eta boluntarioak elkarrekin jolastu zuten. UTZITAKOIA

"Etxea atzean utzita, bizi hobearen bila etorri ginen"

Iturmendiko behaketa eta harrera zentroan egondako bi gaztek Martzillatik erantzun dute bidalitako galdetegia

ITURMENDI

Walid eta Zakaria (asmatutako izenak) marokoarrak dira eta garagarrilera arte Iturmendiko behaketa- eta harrera-zentroan egon dira. Gaur egun biak Martzillan dagoen zentroan daude. Walidek 16 urte ditu; bat gehiago Zakariak. Aurrenak azaldu digunez, sorterrria utzi zuen "han bizia ez zelako ona". Zakariak, berriz, sortetxea "bizi hobea bilatzeko" utzi duela jakinarazi digu.

Walidek ez du bere migrazio prozesuaren zehaztasun handirik eman nahi izan. Jakinarazi digun bakarra da "bidaiaria, gutxi gorabehera, ongi joan zela". Itsasontzi batean estali zen Gibraltarko itsasarte pasatzeko. Zakariak bi bidaiaria egin zituen: "aurrenekoa oso zaila izan zen; bigarrena errazagoa". Kamioi baten azpian estalita egin zuen zeharkaldia. Maroko atzera utzi ondoren egin

zuten aurreko gauza gogoratzen ote duten galdetuta, Walidek familiari hots egin ziola esan digu. Bizi seinalea eman nahi izan zien gertukoei horrela. Zakariak, berriz, kamioi azpian muga pasa eta horrek eskatu zion ahaleginagatik "oso nekaztuta nengoen eta lo egin nuen" aitortu du.

Zakaria ilbeltzean iritsi zen Iturmendira eta Walid, berriz, otsaileko arratsalde batean. Azken horrek bazekien gaztelania pixka bat eta hura hobetu du Iturmendiko behaketa eta harrera zentroan egon den bitartean. Zakariak, berriz, ez zekien eta han ikasi zuen. Biak orain Martzillan daude eta zein asmo dituzten azaldu digute: gaztelania ongi ikastea Waliden kasuan, eta ikastaroren batean zerbait ikastea Zakariaren kasuan. Bere helburua ikastea eta lana opatzea baita.



Hemen da udako Gozamenez kanpaina

Gazteei artean sexualitatearen ikuspegi adeitsua eman nahi dien programak ikuskizun bat eskainiko du bederatzi herritan. Aurreko urteetan herrietako igerilekuetan Ur Festa Goxoak egiten ziren; ikuskizun batek ordezkatu ditu

SAKANA

Aurten igerilekuetan ez da gazteendako Ur Festa goxorik izanen. Baina Sakanako Gozamenez Batzordeak programaren udako eskaintzari heldu dio eta zerbait "berezia" eskainiko die udan gazteei: Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin ikuskizuna. Pantxika Lamour protagonista duen emanaldia ibarreko bederatzi herrietan izanen da ikusgai. Batzordetik gaztigatu dutenez, "12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako ikuskizuna da, hala ere, interesa duen edozein ongi etorria izanen da".

Batzordekideen hitzetan, "Gozamenez programak gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzea du helburu. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi ditu gazteen artean nahiz gazteen eta haien bitartekarien artean (familia, ikastetxea, hedabi-



Aurretik egindako Ur Festa Goxoa.

deak...). Gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian utzi nahi du, gune publiko eta ohikoetan". Hori lortzeko esperientzia ludikoez baliatzen dira. "Horien bidez ohartarazi nahi diegu gure gorputzak eta zen-

tzumenak plazer iturri eta komunikazio bide direla".

Haien iritziz, "aurtengo uda berezia izanen da guztiendako, horregatik, zerbait berezia antolatu dugu". Gazteak ikuskizunaz gozatzera gonbidatu dituzte.

Egutegia

Herria	Eguna	Ordua
Etxarri A.	Garilak 15	21:30
Altsasu	Garilak 21	22:00
Uharte A.	Garilak 22	21:00
Lakuntza	Garilak 23	21:00
Arbizu	Garilak 24	20:00
Unanu	Garilak 25	20:30
Bakaiku	Garilak 31	20:00
Irurtzun	Agorrilak 4	21:00
Iturmendi	Agorrilak 7	20:00



Jabi Asurmendi eta Lamia Arcas.

Lurgida, Euskal Herria beste modu batez ezagutzeko

Udalbiltzak turismo aplikazioa sortu du Android eta iOS gailuendako, edo www.lurgida.eus

SAKANA

Gailu mugikorretarako aplikazio horren bidez, Udalbiltzak Euskal Herrian barne turismoa sustatu nahi du. Erakundeko lehendakari Jabi Asurmendik esan duenez, "turismo jasangarriagoa eta lurraldearekiko errespetuan oinarriturikoa bultzatu nahi du, eta bide batez, tokiko ekonomiarendako onuragarria izango dena".

Lurgidak barne eta kanpoko bisitariei Euskal Herria beste modu batera ezagutzeko aukera eman nahi die. Aplikazioan edo webgunean sartzen denak materia gabeko ondarea eta historia zeharkatzen dituzten hainbat ibilbideri buruzko informazioa opatuko ditu. Baita makina bat udalerriri buruzko informazioa ere (interesa guneak, historia, ohiturak, jaiak eta abar).

Horrekin batera, Udalbiltzak furgoneta eta autokarabanei ongi etorria egiten dieten etxaldeak bildu ditu. European hain errotuta dagoen praktika horren bidez, bisitariek gaua bertan pasatzeko aukera dute, eta, era berean, baserritarrek haien ekoizpenak ezagutarazteko parada ezin hobea dute. Modu horren bidez, 0 km kontsumoa sustatu nahi da, lehen sektorearekiko sentsibilizazioa eta ezagutza areagotuz.



Berrituta kaleetako bat.

Iturmendiko sareak eta zorua berritzeko lanak bukatuta

Aste honetan azken lanak egin eta gero, Estafeta, Elizalde, Arrano Beltza, Konsistorial eta Zirrinkale kaleak berritu dira. Construcciones Beroste SA enpresa ilbeltzeko bigarren astean hasi zen lanak egiten: euri uren eta ur beltzen sareak banatu, gainontzeko sareak eta zorua berritu, herri argiteriako kableak lurperatzea eta berokuntza sistemako hodiak jarri dituzte.

Festak eta erromeriak bertan behera gelditu dira

Iturmendiarrek festak ospatzen egon beharko lukete. Irintarrak igandean San Gregorio ermitan elkartzeak ziren; altsasuarrak, berriz, Erkudenen. Bakaikuko Udalak jakinarazi du festak bertan behera gelditu direla. Gauza bera Altsasuko festak eta feriak. Toki publikoetan COVID-19 gaitzari aurre egiteko neurriak ezin direlako hartu suspentitu dira.

Ospa eguna agorrilaren 29an izanen da

Ospa herri mugimenduak jakinarazi duenez, aurtengo Ospa egunak "errepresio indarren azken hilabeteetako aurpegi garbiketari buelta emateko" asmoa du. Mugimenduak ohi duen bezala, eguna baliatuko dute ere "urteetan jasaten ari garen errepresio sistematikoaren kontrako errebindikazioak lau haizetara" zabaltzeko.

Sexualitatea irudi bidez hausnartu

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak, gazteria eta sexualitate programaren baitan, Gozamenez film laburren lehiaketa antolatu du: 'Nola Gozatu eta Disfrutatzen duzu?' Gazteak bideoak sortzen jarri nahi dituen lehiaketa horren helburua da sexualitateari buruz hausnartzea eta haren gainean ditugun hainbat ideia eta ikuspuntu adieraztea. Horrekin batera, antolakuntzak nahi du "bideo lanek sexualitatearen ikuspuntu positiboa, plurala, integrazionala eta irekia izatea, erredukzionismoetatik urrunduta". Azkenik, "aniztasunean eta gozamenen zentratzea" proposatu du, "bost zentzumenen, fantasien,

ilusioen eta abarren bitartez... pertsonen garapen globala bilatzeko". Lana egiteko inspirazioa behar duenak www.gozamenez.com web orrian opa dezake.

Gozamenez film laburren lehiaketan 12 eta 25 urte bitarteko sakandarrek parte hartu dezakete. Horretarako hilaren 23a baino lehen izena eman beharko dute, banaka edo taldeka, intxostiapunta@altsasu.net e-postan edo 948 564 785 eta 608 617 778 telefonoetara hots eginez (18:00etatik 20:00etara). Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu behar dira (irailaren 3ra arteko epea).

Fikzioa, dokumentala eta animazioa izan daitezke

aurkezten diren lanak eta haien egiteko edozein teknika baliatu daitezke. Edozein gailu digital baliatu daitezke grabazioa egiteko. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke, baina ezin izanen dute 10 minutu baino gehiago iraun. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez ere, bi lan aurkez ditzake. Altsasuko lehiaketara aurkezten diren lanak Nafarroako Gozamenez lehiaketara aurkezten diren berberak izan daitezke. Obra guztiak VCL programarekin ikus daitezkeen formatuetan aurkeztu behar dira.

Lastailaren 2an 3 sari emanen dira: banakako lan onenarendako (70 euro), talde lan onenarendako (250 euro) eta publikoarena (100 euro). Hori 12 eta 30 urte arteko altsasuarek aukeratu dute.



Udako kanpainaren irudia. UTZITAKOIA

Tragoen atzean dagoenaz hausnartzeko

Ongi pasatzeko alkohol kontsumorik ez dela behar gaztigatu dute gizarte zerbitzuek. Bideoa zabaldu dute

SAKANA

Pandemiak eragindako osasun larrialdiak etxeko konfinamendua ekarri zuen. Leitzako, Irurtzango, Etxarri Aranazko eta Altsasuko eskualdeetako Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatetako prebentzio teknikariak konturatu ziren etxeko itxialdiak iraun zuen bitartean Whatsapp bidez alkoholari buruzko mezu ugari zabaldu zirela eta alkohol kontsumoak gora egin zuela. Alkoholaren kontsumoa gain dimentsionatu dela ikusirik, aurtengo udako prebentzio kanpaina hari eskaintzea erabaki zuten.

Teknikariek azaldu dutenez, "konfinamendu bitartean egin ezin genituen gauzen hutsunea sumatu genuen, eta horien artean lagun artean eta familia-koekin egotea zen gehien gogoratzeko gurea. Kontakutuan horiek mantentzeko eta gertu sentitze-ko moduak bilatu genituen birtualki bazen ere". Harreman horiek, "ez beti, baina batzuetan alkohol kontsumoarekin lotuta egoten dira".

Leitzako, Irurtzango, Etxarri Aranazko eta Altsasuko prebentzio teknikariek gaztigatu dutenez, "konfinamendu garaian sareetan mugitu ziren mezueta alkoholari eta kontsumoari eman zitzaion garrantzia guztia. Konturatu gabe, guztiok gara zalantzarriak diren ideien sustatzaileak. Esaterako, alkohol kontsumorik ez badago ezin duzula ondo pasatu pentsatzea, adiskidetasuna kaña batzuk

hartzea dela..." Horregatik, "ideia horien inguruan hausnarketa" bulkatu nahi izan dute, "benetan garrantzitsua denari erreparatzeko asmoz; gehien behar genuena lagunekin eta maite genuen jendearekin egotea zen, eta ez kontsumitzea soilik".

20 urte

"Uda garaian, eguraldi onak bulztatuta, oporrak, denbora libre izatean gehiago ateratzen gara kalera, eta horrek gehiago kontsumitzeko aukeran jartzen gaitu". Horregatik, Oinarriko Gizarte Zerbitzuen prebentzio zerbitzuek bi hamarkada darabate udan prebentzio kanpainak egiten. Tarte horretan hainbat gai landu dituzte: lehen kontsumoak, nahasketak, alkohola eta gidatzea, festa aurretik erabakiak hartzea... Gaiaren arabera, kanpainaren hartzaileak aldatu dira.

Mezuak zabaltzeko modua ere desberdina izan da uda batetik bestera. Formatu "praktikoak, erabilgarriak" lehenetsi dituzte lau teknikariek udaz uda beraien mezua zabaltzeko: orri markatzaileak joan den urtean, zapatilendakoak, agendatxoak, banakako mahai oihalak edo aurtengo bideoa.

"KONTURATU GABE, GUZTIOK GARA ZALANTZAGARRIAK DIREN IDEIEN SUSTATZAILEAK"

Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko Ebaluazioan aurrera

Proba egiteko izena eman zuten Nafarroako 3.537 ikasleetatik 3.396 ikaslek gairatu zuten ebaluazioa (%96,53). Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institututik 44 ikasle joan ziren proba egitera, eta guztiak gairatu dute. Bat ez beste guztiak D ereduko ikasleak dira. Unibertsitatean matrikulatu beharko dute orain.

Gamesaren itxieraren kontra protesta Iruñean, bihar, 18:00etan

Gamesa-Siemens enpresak joan den astean jakinarazi zuen Agoitzen duen lantegia itxi, eta 239 langile kalera bidaliko dituela. Haietako 40 bat Gamesaren Altsasuko lantegian aritutakoak dira. Enplegu Erregulazio Espediente indarrean jarri aurretik hilabete bateko kontsulta epea dago eta hura herenegun abiarazi zuten, zuzendaritzaren eta

enpresa batzordearen arteko bilera egitean.

Langileek ordezkariak (ELA 6, LAB 4, UGT 2 eta CCOO 1) erabat arbuiatu dute enpresak aurkeztutako itxiera planteamendua. Espediente erretiratzea eta lantegiari irtenbidea edo alternatiba bilatzea eskatu dute. Langileen iritziz, deslokalizazio kasu bat da gertatutakoa. Haien iritziz, lantegia lehiakorra eta produktiboa da. Salatu dutenez, enpresaren arrazoiek ez dute inola ere justifikatzen lantegia ixtea.

Guztion artean
Sakana aurrera

Udako ale berezia uztailearen 31an

Jarri gurekin harremanetan: publi@guaixe.eus | 661 52 32 45

PUBLIZITATEA

guaixe fundazioa

guaixe SAKANEN ARTEKARIA



Arbizuko ekokanpineko Jesus Mari Reparaz, eta Susana Aiestaran langilea. UTZITAKOA

"Berriainek tiratzen du; Tritoienerako prest gaude"

JESUS MARI REPARAZ TRITOIENAKO ANTOLATZAILEA

MENDI LASTERKETAK IV. Tritoiena mendi lasterketa abuztuaren 30era atzeratu dute, Nafarroako Banakako Txapelketa izango da eta izena ematea zabalik dago

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU
COVID-19 pandemiak maiztazaren 31n jokatzekoa zen IV. Tritoiena mendi lasterketa bertan behera utzi zuen. Arbizuko ekokanpinak eta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak proba atzeratzea erabaki zuten. Abuztuaren 30ean jokatu da, goizeko 09:30ean hasita. **Tritoienera eusteko apustu handia egin duzue Arbizuko ekokanpinekoek. Akaso biderik zailena hartu duzue: beste data bat bilatu, pandemiari aurre egiteko eskatzen diren neurriak bermatu...**

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubekoek, Peio Vergarak bereziki, proba antolatzaera animatzen gintuzten: "gingo dugu, lasai, egingo dugu" esaten zigun. Hasieran, lasterketa irailaren 6ra atzeratzea genuen buruan eta

"SEGURTASUNAGATIK 200 KORRIKALARIREN MUGA JARRI DIGUTE; IZENA EMATEA ZABALIK DAGO"

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioarekin harremanetan jarri ginen; baina federaziokoek esan ziguten egun horretan eraberritutako Belaguako aterpea mustuko dutela eta data horretan mendi ekitaldirik ezin zela antolatu. Horrela, abuztuaren 30ean pentsatu genuen, uste genuelako agian aurten jendea kanpora gutxiago aterako dela. Horrela, apustua egitea erabaki genuen eta behar ziren tekla guztiak ukitu genituen. Baimen guztiak ditugu eta aurrera!

IV. Tritoiena mendi lasterketak Euskal Herriko Mendi Lasterketen Rankingerako eta Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuatzen zuen aurten, eta, horretaz gain, Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketa zen. Data aldaketarekin Nafarroako Txapelketa izaten jarraituko du?

Bai. Nafarroako Mendi Federazioak ziurtatu zigun, antolatuz gero, Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketa izaten jarraituko zuela gure probak. Eta horrek ere proba atzeratza eta aurten egitera animatu gintuen. Izan ere, Nafarroako Txapelketak errotatzen dituzte, aurten guri tokatu zitzaigun eta, aldi berean, parean beste bitxo hori tokatu zaigu. Dena tokatu behar...

Birusak guztia geldiarazi eta gero, Nafarroan antolatzen den lehen lasterketa izanen da zuena?

Nik uste dut lehendabizikoa izango dela. Udaberrik atzeratu diren beste lasterketa pare bat jokatu omen dira, eta data horietarako berez aurreikusiak zeuden batzuk. Klub asko zalantzan daude euren probak antolatu edo ez. Uharte Arakilen ere zalantzan omen daude Km Bertikalarekin. Ez dakit azkenean zer egingo duten.

Osasun pandemiagatik ezarritako segurtasun neurriak direla eta 200 korrikalariren muga duzue. Izena ematea zabaldu duzue?

Bai, joan den ostiralean ireki genuen izena ematea www.rockthesport.com webgunean. Otsailean hasiera batean maiztazaren 31rako antolatutako lasterketarako izena ematea zabaldu genuen, eta 16 korrikalari zeuden izena emanda martxoaren hasieran. Txokantea zen, tartean Menorcako jendea baitzegoen. Proba polita zela entzun zutela eta... Izan ere, Berriainek, azkenean, tiratzen du.

Berriain ardatz, Tritoienera ibilbidea mantentzen duzue?

Bai, 21 km inguruko buelta da, kanpinetik aterako dena. Hasieran, Arbizuko ekokanpinaren perimetroari buelta bat emango zaio, kilometro eta erdi ingurukoa, eta ondoren Leziza ubeldea gurutzatu, -horretarako zubitxo

"BERIAIN ARDATZ, OHIKO IBILBIDEA MANTENTZEN DUGU. 21 KILOMETROKO IBILBIDE EDERRA DA"

bat jartzen dugu-, eta Unanuko dermiora sartuko da, Ondatzera. Ondatzetik Unanu herrira jaitsi, eta Tritoienera ibilbidetik Berriain igo eta gero, Uharte Arakilgo portutik jaitsiko da. Portu erdian Unanuko terreno aldera egiten da, Ondatz gainera Arbizon sartzen da, Arnatzen, eta hortik kanpinetara helmugara. Ibilbide ederra da, dudarik gabe.

Korrikalariren mugaz gain, zein beste segurtasun neurri berezi ezarriko dituzue?

Irteera mailakatu izango da; ez dira korrikalari guztiak batera aterako. Duxa, aldagela eta halakoen eskakizunen inguruan, Arbizuko kanpinean gaur egun protokolo horiek guztiak betetzen ditugu. Beraz, korrikalarietara gure instalazioetan dutxatzeko aukera izango dute. Kanpinean jende asko dabil, eta kanpinetara egin dugun moduan, karrerarako ere, prest egongo gara. Saria emateko ekitaldia nola izango den oraindik ez dugu begiratu, baina eskatzen digutena prestatuko dugu; musurik ez da izango, hori seguru (kar, kar).

Korrikalariendako auzatea izanen da?

Kanpina leku zabala da eta jendea ez dugu utziko ezer gabe. Hori, ziur. Mahaiak barratuko jarri eta izango dute zer jan eta zer edan...

Aipatu digute probaren hasieran errekonozimenduren bat egingo diezuela osasun krisian lanean aritu diren sanitarioei eta langileei. Dantzaleku klubekoek esker on hori adieraztea proposatu ziguten. Euren ideia da eta guk bat egiten dugu. Ongi iruditzen zaigu, eta egingo dugu.

Beraz, segurtasun neurri guztiak bermatuta eta inolako arazorik gabe, sakandarrak Tritoienera izena ematera eta parte hartzaera animatuko ditugu, ezta?

Jakina! Ea Sakanako korrikalari gehienak behintzat etortzen diren, hemen korrikalari dezentente baitaude... Orain arte ez da lasterketarik egon, eta pentsatzekoa da irrikaz egongo direla. **Pandemiari dagokionez, espero dezagun osasun egoerak okerrera ez egitea...**

Hemendik abuztu bukaerara hilabete eta erdi falta da. Ea ez den ezer okertzen! Han eta hemen berriro agerraldiak daudela entzuten da. Ea denok egin beharrekoak ongi egiten ditugun eta abuztuaren bukaerara lasterketa egiteko moduan iristen garen!



Burundakoen entrenamendua. BURUNDA

TXIRRINDULARITZA**Burunda Klubaren aurkezpena bihar**

Normalean otsailean, martxoan eta beranduenez apirilean izaten dira txirrindularitza taldeen aurkezpenak. Lakuntzako Aralar Txirrindularitza Taldeak otsailaren 8an egin zuen aurkezpena Aralarren, eta Burunda Txirrindularitza Taldeko aurkezpena, aldiz, bertan behera utzi zuen COVID-19 pandemiak. Berandu, baina aurkezpena egitea erabaki du talde burundarrak. Bihar, larunbata, izanen da, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Goizeko 11:00etan talde argazkiak aterako dituzte Iortia aurreko zabalgunean eta, aurkezpen ekitaldia, 11:30ean hasiko da. Aurtengo txirrindulariak, antolatuko dituzten lasterketak eta aurtengo asmoak azalduko dituzte.

PILOTA Masters CaixaBank torneoaren 3. jardunaldia jokoan

Asteburuan Masters CaixaBank Torneoako 3. jardunaldia jokatu da. Ezkurdiak eta Aranguren Elezkano II.aren eta Aretxabalearen kontra jokatu dute Larrabetzun (ostiralean, 19:30ean, ETB1); Olaizola II.ak eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Iribarria izanen dituzte aurkari larunbatean Los Arcosen (22:15, ETB1); Jaka eta Albisu Altuna II.aren eta Imazen kontra ariko dira igandean Cenicero (17:00, ETB1) eta Peña II.a eta Martija Artolaren eta Rezustaren kontra lehiatuko dira astelehenean Tolosan (17:00). Momentuz, Martijak 2 puntu ditu, Ezkurdiak 1, partida bat gutxiagorekin, eta Zabaletak ez du punturik.



Sakanako Futbol Campuseko aurtengo argazkiak ere bereziak dira, distantzia mantentzea ezinbestekoa delako.

Futboleant, baina distantziara

FUTBOLA Aste honetan Sakanako Futbol Campusaren lehendabiziko txanda egiten ari da Dantzalekun. 11 gaztetxo daude trebatzen, Maalen Beraza eta Aitor Lara monitoreekin, beharrezko distantzia eta segurtasuna bermatuz

Maidet Betelu Ganboa ALTSASU

Astelehenean hasi zen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Campusaren lehen txanda, Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian. Igandera bitartean trebatuko dira futbolera izena eman duten 11 gaztetxoak Maalen Beraza Etxarri eta Aitor Lara Zia monitore sakandarrekin. COVID-19 birusak baldintzatutako urte honetan Kirol Zerbitzuak futbol eta triatloi campusak antolatzeko apustua egin du, beti ere segurtasun neurriak bermatuz, haurrendako jarduerak antolatzea behar beharrezkoa dela jakitun delako. "Gaztetxoak etxeratuta egon dira eta euren dako ekimenak antolatzea beharrezkoa da, nahiz eta egoera kontuan izanda, arduratsua jokatu behar izan" azaldu du Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Aurtengo guztia bezala, berezia izaten ari da Sakanako Futbol

Campusa. Izan ere, gaur egun ezin da futboleant normaltasunez aritu. Futbola kontaktu kirola da, eta futbolera normal jokatu gero, kontakturik gabeko segurtasun distantzia ezingo litzateke bete. Beraz, aurtengo futbol campusa ez da ohiko campusa. "Futbol egokitua, futbol berezia... nahi dugun moduan deitu ahal diogu. Finean, ariketa indibidualak eta ariketa kooperatiboak landuko dira; hau da, lagunarekin jolastu, baina beti distantzia mantenduta, aurkaririk gabe. Ez da futbolera jokatu, argi eta garbi esan behar da" nabarmendu du Amaia Gerrikagoitiak.

Distantzia neurriak

Beraz, paseak, zig-zag ariketak eta halakoak bai, baina kontra-koari baloia kentzera aritzera ez. Formazio eta trebakuntza indibidualagoak dira aurtengoak. Eta distantzia horiek bermatzen nahikoa lan dute monitoreek. "Distantziak mantentzeko ariketak egiten saiatzen gara. Ohiko

futbol campusa bat ez izatea, futbol partidarik gabe, kosta egiten da, baina behintzat zerbaitetan ari gara" dio Aitor Lara monitorea. Maalen Beraza ere iritzi berekoa da. Bost postutan kokatu ditu partaideak, euren artean paseak eginez, eta erdian dagoenak pase horiek oztopatu behar ditu.

Aste honetan 2008an, 2009an eta 2010ean jaiotako 11 mutil ari dira parte hartzen Sakanako Futbol Campusean. Segurtasun neurriengatik, partaideak bitartean banatu dituzte eta talde bakoitzak monitore batekin egiten du lan. Harmailetara begiratuta, haurren motxilak ez daude pilotuta; bakoitza bere jarlekuan dago, batetik bestera

"EZ DA OHIKO FUTBOL CAMPUSA, BAINA BEHINTZAT ZERBAITETAN ARI GARA"



Sakanako Haur Triatloia.

Sakanako Triatloi Campusa prest

Mank-eko Kirol Zerbitzuak Sakanako Triatloi Campusa antolatzeko xehetasunak lotu ditu. Horrela, uztailaren 20tik 31ra, asteleheneetik ostiralera eta 10:00etatik 12:00etara, txirrindularitza, igeriketa eta atletismoa batzen dituen kirolean trebatuko dira izena ematen duten 8 urtetik 16 urtera bitarteko gazteak. Segurtasun neurriengatik aurrean campusa 20 pertsonara mugatu da. Igeriketa Zelandi kiroldegian landuko dute, eta txirrindularitza eta atletismo atalak, aldiz, Altsasu eta Urdiaingo dermioetako bideetan. Izena ematea zabalik dago uztailaren 15era bitartean edo dauden 20 lekuak bete arte, Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 40 euro.

tartea utzita. Eta, jakina, argazkiak ateratzeko orduan ere, distantzian kokatu dira gaztetxoak. Futbol berria.

Campusa ahalik eta seguruena izateko, aurrean ez da Anoeta edo San Mames Barrira joateko irteerarik egingo. Halaber, bukatzean ez da igerilekuan bainurik hartuko. Guztira bi orduko saioa da, 10:00etatik 12:00etara. Hurrengo astean 2005ean, 2006an eta 2007an jaiotako 15 gaztetxok hartuko dute parte Sakanako Futbol Campusaren 2. txandan.

Ikasturteko

AZALIK POLITENA

Guaixe astekaria

Bozkatu zure hiru azal gogokenak eta parte hartzaile sakandarren artean zozketa egingo dugu. Boto gehien dituen azala Tokikom sarietara aurkeztuko dugu.

Saria:

Aralar, mundua lekua den lurra dokumentala eta liburu sorta, GUAIXE25 kitarekin batera.

WWW.GUAIXE.EUS

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

OLAZTI Ganso&Cía konpainiaren Babo Royal ikuskizuna.
22:00etan, futbito pistan. Euria eginez gero frontoian.

LARUNBATA 11

ARBIZU COVID-19 gaitzaren balizko berpizte baten aurrean egin daitekeena zehazteko batzarra.
11:00etan, udaletxeko areto nagusian.

IGANDEA 12

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Euskaraldia batzordearen bilera irekia. Euskaltzale guztiei irekia.
19:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ASTEAZKENA 15

ETXARRI ARANATZ Alunarekin irakurri eta jolastu jarduera. 3 urtetik gorako haurrendako.
18:00etatik 20:00etara, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Goza Bizi Gozamenez programa. Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako.
21:30etik aurrera, ikastolako patioan.

* Ekimenetan segurtasun neurriak bete beharko direla jakinarazi dute antolatzaileek.

ZORION AGURRAK



Markel
Zorionak Markel!! 7 urte bete ttuzu eta mutil bet einda zaude. Iyendiontan elkarrekin ospatuko diau zuk ematen dezun alaitasunakin. Segi beti bezein jator. Zu famelikuek."



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ESKAINITZA

Pilota monitore gisa aritzeko aste osoko lanaldia eskaintzen da: Lanpostuari buruzko xehetasunak emailaz erantzuzko zaizkizu. Interesatuak idatzi larraunpe@gmail.com helbidera uztailaren 18a baino lehen. Larraun Pilota Elkartea.

IKASTAROKAK

Pandero tailerra Lakuntzan: Taldekako jarduerak izango da; maila ezberdina, hizkuntza musikalki gabe eta adin guztietarako. Inskripzioa udalebteko web orrian.

LEHIAKETA

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50.urteurrenaren logo-tipo lehiaketa: Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordendorez edo eskuz eginda), bi lan gehienez aurkeztu daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnora.

OPATUTAKOAK

Haur baten bizikleta topatu dugu: Etxarri Aranazko Bergara kalean, Pjmask gorria eta lau gurrilduna. Zurea bada deitu 948 564 275 tfnora.

Erreka markako urrutiko agintea aurkitu nuen igandean, Etxarritik Lizarrustirako bidean. Zurea bada, deitu 948 564 275 tfnora.

Armani markako beturreko graduatuak topatu Etxarri Aranazko

plazan maiatzeko azken asteburuan. Deitu 630 49 08 44.

OHARRAK

Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri martxan: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundea material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiegi produktuak, haur oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunetan, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zeharbidetaren 14. zenbakiko udalaren bajearen. Poltsak itxita eraman behar dira, eta astebete ibita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotako, edukiontzietan.

Urteurren aldizkaria: Aurten Altsasuko Gazteria Zerbitzuak 25 urte betetzen ditu eta Intxositapunta gazte gunek 10 urte. Urteurrena ospatzeko aldizkaria sortuko dute, zerbitzuaren historia memoria izanen dena. Baina, aldi berean, Gazteria Zerbitzuak etorkizuneko landu beharko dituen esku hartze ildoan gainean gogoeta egin nahi da. Aldizkarirako iritzi, artikulu, argazki edo ideiak eman nahi dutenek honako bideak erabili beharko dituzte: intxositapunta@altsasu.net, gazteria@altsasu.net emailtara idatziz, edo 608 617 778 - 948 564 785 telefonoetara deituz.

Adingabe atzerritarren egiteko boluntarioak: bakarrik dauden adingabe atzerritarrek bizi dira Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamendua aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Altsasun ostiralean 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkar-tearekin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 eta gestorasocial@asociacionsei.org Informazio gehiagorako: www.asociacionsei.org.

Gazte Karnetaren 30. urteurrenaren dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekie Txartela oparitzen ari die. Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpekie Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juventudnavarra.es/eu/hasiera web gunearen bidez egin dezake eskakera.

Aralako santutegi ondoan dagoen Laguntzearen eraikina zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Lide Mazkarian Jimenez**, ekainaren 20an Olaztin
- **Inhar Alzuart Mendez**, ekainaren 27an Altsasun

EZKONTZAK

- **Asier San Miguel Motino eta Maider Larraza Lopez**, ekainaren 29an Olaztin
- **Irantzu Osinaga Larraza eta Iñaki Razkin Barandain**, uztailaren 6an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Juan Jose Gurmindio Agirre**, uztailaren 4an Olaztin
- **Maria Vallejo Rosado**, uztailaren 5ean Altsasun
- **Emilio Saez de Asteasu Saez de Adana**, uztailaren 6an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 10




Ipar haizearen ondorioz euria izango da gurean. Eguzki guztian zehar zaparradak izan ditzakegu eta temperatura epelak izango dira.

Larunbata, 11




Nahiz eta eguna lainotuta eta euri pixka batekin hasi, eguerditik aurrera atertu eta eguzkia ikusi ahal izango dugu zeruan.

Igandea, 12



Hego haizea izango dugu, eta ondorioz, temperaturek gora egingo dute. Egunaren azken orduetan ekaitza izan dezakegu gurean.

Astelehena, 13



Eguna beroa izango da, eguzkitsu egongo da, baina noizbehinka hodeien presentzia izango da. Euririk ez da izanen.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA

Juanjo Gurmindio Aguirre
(2020ko uztailaren 4ean hil zen)

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Anton anaia, Mari Carmen koinata,
eta Ander eta Naroa ilobak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Erkuden Ruiz Barroso IHABAR

Antzerkigilea, aktorea, dantzaria, zuzendaria... Ion Barbarinek "artista" bezala deskribatu du bere burua. Taularen gainean zein atzean gustura aritzen da. Lizarran jaioa den arren, Ihabarko kaleetatik "etxean bezala" sentitzen da. Besteak beste, Amico Teatro konpainia sortu zuen Txori Garcia Uriz antzerkigilearekin batera. Iaz Erriberriko Antzerki Jaialdian erresidentzia artistikoa egin zuten, eta bertan hausnartutakoaren emaitza *Transitos* diziplina anitzeko antzez-lana da. Urriaren mustuko dute DNA 2020 Nafarroako Dantza Garaikidearen programaren barruan. Antzez-lana Irurtzunen entseatuko dute, eta, beraz, aurre mustutzea Irurtzunen egiten dutela aurreratu du. Gainera, Altsasun ere egonen direla esan du Barbarinek.

'Amico's Planet' Erriberriko Jaialdiko erresidentzia artistikoaren emaitza erakutsiko duzue aurten. Bai. *Transitos* lanean bihurtu da. Maiatzean estreinatu behar genuen, baina koronabirusaren kontu honekin eta konfinamenduarekin atzeratu behar izan dugu. Urriaren 23an estreinatu dugu Tafallan, eta 24an Mutiloan egingo dugu.


Ikerketa lana egin zenuten. Zein zen hipotesia? Zeintzuk dira ondorioak?

Gustura geratu ginen. Kolaborazioak deitu genituenak egin genituen. Jon Maiarekin, Dora Salazarrekin, David Bernuesekin eta Rakel Abeloarekin aritu ginen, dantza, arte ederrak, argiztapena eta dantza, hurrenez hurren, lantzen. Lana eta esperientziak elkarbanatzen aritu ginen. Mercedes Castaño antzezlanaren zuzendaria dena eta Txori Uriz eta biok komikoak garela gure mundu poetikoa beste artisten mundu poetiko horrekin elkar elikatu genituen. Emaitza positiboa izan da. Oso pozik geratu ginen eta harremanetan jarraitzen dugu. Dorak hainbat maskara egin ditu, eta eszenografia bere obra batean oinarritu dugu. Jon koreografia laguntzailea izango da ere eta Davidek argiztapena egingo du. Koprodukzio bat izango da, Amico gure konpainiaren eta Daviden Acronica producciones-en artean. Berrikuntza bezala bi musikari izango dira: Jonek biolinista eta pianista batekin harremanetan jarri zigun; Itziar eta Idoia. Haiek

"Umorea sendagai ona izan daiteke"

ION BARBARIN LISARRI ANTZERKIGILEA

Ihobarren bizi den aktoreak lan berri bat mustuko du udazkenean: 'Transitos'. Koronabirusak sortutako egoera honetan antzerkia beharrezkoa dela esan du



Ion Barbarin Lisarri antzerkigilea.

"ANTZERKIAK ETA ARTE ESZENIKOEN EGOERA HONI BURUZ ASKO ESAN DEZAKETE"

"GIZAKIAREN OINARRIETARA JOAN NAHI DUGU; BEHARREZKOA DELA IRUDITZEN ZAIGU"

musika egingo dute, egiten ari dira, eta zuzenean joko dute. Eszenografia Raul Arraizak Ihabarko eszenografo batek egin du. **Emaitza, beraz, *Transitos* antzez-lana da. Zer kontaktatu du?**

Oraindik bukatzen ari gara. Orain arte geldituta egon gara, eta abuztuan martxan hasia espero dugu. Identitatearen inguruan hausnartzen ari gara, maskulinoa eta feminoia delakoan, baina ez bakarrik gizona eta emakumea bezala ulertuta, baizik eta bakoitzaren barnean dauden bi polo horiek nola elkartzaren diren eta nola eragiten dioten. Bi dualtasun horiek. Gizakiari buruz hitz egin nahi dugu. Berreskuratu nahi dugu lehengo hizkuntza, estetikoki ere arte sanoaren bidez egiten ari gara, ez dugu digitalik nahi; dena artisaua izatea nahi dugu. Erritualak ere landuko ditugu. Gizakiaren oinarrietara joan nahi dugu. Iruditzen zaigu gaur egun oso interesgarria eta beharrezkoa dela. Martxan jarriko gara orain, eta gauzak aldatuko dira. Bizi duguna agertu behar da.

Beraz, beste bide bat ireki dizue koronabirusak?

Agertokian agertzen dena bizitzen duzuna da. Zure bizipenak eta gertatzen zaizkizun gauzak dira gero adieraziko duzuna. Orduan, bizi dugun egoera hau ez da edozer gauza, eta islatu beharko dugu.

Zer moduzko esperientzia izan zen Erriberriko Jaialdian egotea?

Oso polita. Aste bat horretara bakarrik egon eta dirulaguntza batekin luxu bat da. Horrela izan beharko litzateke, hori egiteko aukera gehiago izan beharko

genituzke. Gure lana sortzea da, eta normalean hilabete batean zerbait prestatu ahal izateko lan egiten dugu. Ia baliabiderik gabe lan egiten dugu, eta horrela ezin da. Sortzeak denbora behar du, gauza bat dela edo bestea dela, urte bat baino gehiago daramagu honekin. Eta denborarekin egin nahi genuen, galtzeko aukera izan nahi genuen, eta zentzu askotan oraindik galduta gaude. **Eta DNA 2020 programaren barruan mustuko duzue. Programa hauek zuzendako garrantzitsuak dira, ezta?** Bai. Programa hau dantza garaikidekoa da. Antzerkirako gutxi badago, dantzarako are gutxiago. Orduan, aukera bat da; noski. Bi funtzio egin ahal izatea, estreinaldi bat eta beste bat, aukera oso ona da. Bai publikoarendako ikusteko aukera duelako bai gureta mugitzen hasteko. Obra bat estreinatzea erditzea bezala da; umea izan duzu, baina gero ibiltzen ikasi behar du... prozesu hori funtzioek sortzen dute.

COVID-19 VS. ANTZERKIA

Urte arraroa izaten ari da. Kultura izan zen eten zen lehenengo arloa. Zer moduz daramazue?

Denok bezala: ezjakintasunez. Ez dakigu zer gertatuko den, baina konturatu gara sistema oso ahula dela. Kultura mailan, esaterako, departamentua oso galduta egon da, ez daki nora joan eta orain pixka bat mugitzen hasi da. Kale antzerkia mugitzen hasi da. Txori eta biok *Amico's on the beach* egiteko hainbat funtzio ditugu dagoeneko. Esperientzia berria da eta aldaketak datozela iruditzen zait. Etorri dira. Ez bakarrik antzerki eta kultura munduan, nik uste gizarte eta mundu mailan ere. Beste non-baitera joan behar dugu, eta ez dakigu nora. Horrek beldurra ematen digu.

Konfinamendua nola pasatu duzu?

Intentsua izan da. Lau eta zazpi urteko bi haur dauzkat eta ondo egon dira. Gu ere ondo egon gara. Baina denetarik izan dugu, eta gogorra izan da. Azkenean, gelditzen zarenean... Gustura egon gara ere, baina erdian familia arazoak izan ditugu eta momentu batzuetan zaila izan da.

Sortzeko aukera izan duzu?

Ez nuen gogorik eta oraindik ere kostatzen zait. Lanbidea beste modu batean planteatzera eraman dit. Ez dakit nola egingo dudana, baina artiston egoa oso handia da eta asko pentsatu

dut nola eta zergatik egiten ditudan gauzak. Publiko batentzako egiten dugu, baina nola? Krisi batean sartu naiz. Gauzak besteei gustatzeko edo nire bihotzetik egiten ditudan planteatzen hasi naiz. Argi daukat ateratzea behar dudala. Gauza oso sotilak dira. Iritzi pertsonala da, baina batzuetan gauzak egiten ditugu hutsune antzeko bat betetzeko eta besteei gustatzeko, baina hutsune hori ez da betetzen. Honek edo besteak egingo nau zoriontsu pentsatzen dugu, eta egin ondoren ikusten dugu momentu baterako zoriontsu egin gaituela, baina besterik ez.

Eta orduan gelditzera behartzen gaituzte eta...

Eta hor iruditzen zait dagoela lana. Norberak bere barrura begiratzea.

Kulturak konfinamenduan asko lagundu duela esaten dute.

Gure lana beharrezkoa da. Gaur egun are gehiago. Antzerkiak eta arte eszenikoek egoera honi buruz asko esan dezakete, baina gauzak beste modu batean esateko ere. Umorearen bitartez, esaterako. Umorea sendagai oso ona izan daitekeela iruditzen zait. Oso ona da defentsak igotzeko.

Umorea eztabaidagai izan ohi da. Koronabirusaren inguruan umorea egin daiteke?

Nik uste baietz. Guztiarekin egin daiteke umorea. Nola egiten duzun da gakoa. Baina pixka bat askatu behar garela uste dut. Oraindik gaizki pasatzen ari garela iruditzen zait. Orduan, bai. Beharrezkoa da. Distantziaren gaiarekin, maskarekin... inori errespetua galdu gabe. Hori beti.

Kaleko antzerkia dagoeneko mugitzen hasi da... baina desberdina izango da, ezta?

Noski. Gu adibidez *Amico's on the beach*-en publikoaren artetik ateratzen ginen, orduan orain, ikusi behar dugu maskarekin agertuko garen edo nola egingo dugun, publikoko pertsona bat ateratzen genuen eta hori ere ikusi beharra daukagu... Beste modu batean.

Buruan proiektu berriak dituzu?

Momentuz, ez. *Transitos* egitea. Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen dirulaguntza batera aurkeztuko gara ekoizpena oso handia delako. Datorren urtera begira kaleko antzerki bat prestatzea pentsatu dugu jendeak eskatu dugulako.



Etxarri Aranazko Abesbatza eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatza osasun langileei omenaldian. UTZITAKOAK

Esker ona, miresmena eta maitasuna

Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzak osasun langileei omenaldi "xumeak" baina "oso hunkigarriak" egin zizkieten bi herrietako osasun etxeetan eta egoitzetan

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Konfinamendua hasi zenetik, Etxarri Aranazko Abesbatzako zein Erkudengo Ama Abesbatzako kideek ez zuten elkar ikusi. Martxoaren erdialdean utzi behar izan zituzten bertan behera entseguak eta kontzertuak, koronabirusak sortutako osasun krisialdia dela eta. Etxera eraman zituzten partiturak eta audioak, eta itxialdian bakarka entseatzeko aukera izan zuten. "Gogorra izan da etenaldi hau egin behar izatea, bizitzako beste edozein arlotan bezala. Baina ahal dugun heinean bueltatuko gara. Garrantzitsuena denak itzultzea da", esan du Maria Goikoetxea Etxarri Aranazko Abesbatzako kideak.

Hiru hilabete luzeren ondoren, biltzeko momentua aurreko ekainaren 26an itzuli zen. Nafarroako Abesbatzen Federazioak deituta, abesbatzek omenalditxoak egin zizkieten osasun langileei osasun zentroen aurrean. Nafarroa osoko abesbatzek hartu zuten parte ekimenean, eta guztiak batera, 14:00etan (Etxarri Aranazko kasuan

15:00etan izan zen), osasun langileei "esker ona, miresmena eta maitasuna" adierazi zizkieten kantuaren bidez, Puri Altzelai Erkudengo Ama Abesbatzako kideak azaldu bezala. Etxarri Aranazko Abesbatzak *Agurra* (dantzari batek aurrerakua dantzatzaren bitartean), *Izar ederrena*, *An Irish Blessing* eta, bukatzeko, *Agur Jaunak* abestiak kantatu zituen eta Erkudengo Ama Abesbatzak *Agur zaharra*, *Dulce Embeleso*, urrutetik bidalitako muxuak barne, eta *Agur Jaunak* abestiak interpretatu zituen.

Sentimenduak

Elkarrekin entseatzeko denborarik gabe, Sakanako bi abesbatzek emanaldi "xume", baina "oso hunkigarriak" eskaini zituzten Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeetan. Erkudengo Ama Abesbatzak Josefina Arregi klinikaren eta Aita Barandiaran adinduen egoitzan ere egin zituen emanalditxoak. "Oso hunkigarria izan zen. Espero ez dituzun sentimendu asko pilatzen dira, eta kantatzen ari ginela, momentu batzuetan, oilo ipurdia jarri zitzaigun, eta zi-

rrara luze eta azkar batek gorputza zeharkatu zigun". Konfinamenduan zehar egin ziren txaloak "hunkigarriak" izan baziren, protagonistak aurrean izateak "sentimendua areagotu" zuela azaldu du Altzelai. Etxarri Aranazko "oso eskertuta" zeudela esan du Goikoetxea, eta "malko batzuk" isuri zirela ere esan du, "osasun langileen, abesbatzako kideen zein ekitaldia ikusten ari zen jendearen artean".

Erkudengo Ama Abesbatza Josefina Arregi klinikara eta Aita Barandiaran adinduen

EMANALDI "OSO HUNKIGARRIAK" IZAN ZIREN PARTE HARTZAILE GUZTIENDAKO

ETXARRI ARANAZKO ABESBATZAK 50. URTEURRENA OSPATU BEHAR ZUEN AURTEN

egoitzara ere joan zen bertako langileei omenaldia egitera. Bi egoitzetan dauden pazienteak eta egoiliarak ere entzuterak atera ziren. Klinikako langile batek adierazi zuenez, "badakit omenaldia guretako dela, baina musika izugarri gustatzen zaie eta ezin zuten emanaldia entzuteko ohore hau galdu". Osasun langileen aurrean abestea hunkigarria izan zen, baina klinikaren eta adinduen egoitzan "sentimenduak areagotu" zirela azaldu du Altzelai. "Pandemia arras arrisksua izan da beraiendako, eta mina eta amorrurik sentimenduak ere azalera ziren". "Gure esku dagoen omenalditxo egin genien", baina Altzelai gaineratu duenez, "omenaldi hoberena osasun langileen lan baldintzak hobetzea eta beharrezkoak diren baliabide pertsonalak eta materialak ziurtatzea izango da".

51. urteurrena...

Etxarri Aranazko Abesbatza 50. urteurrena ospatu behar zuen aurten. "Egoera berezi honen aurrean, berrasmatzeko beharrea" daudela aipatu du Goikoetxea. "Gaur egun ezinezkoa da ohiko kontzertu bat egitea, baina egoerari buelta emango diogu". Etorkezinean "mila" ospakizun egingo dituztela esan du: "Proiektu asko eta politikak genituen 50. urteurrenerako. Egingo ditugu. Agian 51. urteurrena da garrantzitsuena...". Besteak beste, Etxarri Aranazko Abesbatza urteurren logoaren bila dabil, eta lehiaketa antolatuta du. Proposamenak aurkezteko azken eguna hilaren 31 izanen da.

"Itsesi igerilekuak lasaiak dira, toki paregabea"

Uharte Arakilgo Itsesi igerilekuetan sorosle eta harrerako langile dira Jon eta Urko. Asteburuetan egoten da jende gehiago, autokarabanen gunera etortzen diren bisitariengatik; baina, hala ere, igerilekuak lasaiak direla diote, paraje bikainean

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL

1 Noiz zabaldu ziren Uharte Arakilgo igerilekuak?
Ekainaren 19an.

2 COVID-19 birusa dela eta, zein neurri hartu dira?

Sartu baino lehen, zapatak erantzi, txankletak jantzi eta kloro eta uraren disoluzioa duen alfonbra berezi baten gainean oinak garbitu behar dira eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu. Igerilekuan, toallen artean distantzia egon behar da. Sarritan, haur txikiak, kartetan jolasteko, oso gertu jartzen dira, eta kasu horietan maskara janzteko eskatzen zaie. Hiru igerilekuetan, sartzeko ate bat eta ateratzeko beste bat jarri ditugu. Bestalde, aurten txanoa jartzeko neurria ezarri dugu, lehenengoz.

3 Uharte Arakilgo igerilekuek espazio handia dute.

Bai. Orain, legez, aforoaren %75 bete daiteke; eta, hortaz, 450 pertsona sar daitezke, baina segurtasuna hobe bermatzeko udalak aforoa 325 pertsonara jaitsi du. Igerilekuetan ere gauza bera: handian 80 pertsona sar daitezke, bertan 17 eta txikian 6.



Jon Lapuente eta Urko Gorriti, Uharte Arakilgo igerilekuetako langileak.

4 Desinfekzio bereziak egin behar dituzue, ezta?

Bai, igerilekuko ertza eta ingurune guztia, harresitik barruko guztia, desinfektatu behar dugu: lurra, heldulekuak... Fumigatzaile motxila kloro eta ur nahas-

ketarekin bete, eta lehen pasada goizeko 10:00etan egiten dugu. 14:30ean igerilekua ixten da, jende guztia kanpora atera behar da, eta 15:00ak bitartean beste pasadaxo bat egiten diogu. Eta arratsaldeko bost eta erdietan,

jendea uretik atera eta berriz ere desinfektatu egiten dugu.

5 Inguruko herrietako jendea hurbiltzen da igerilekuetara?

Normalean Uharte Arakilgo jendea da. Irañetakoa ere dezente etortzen da, baina aurten irintarrak ez dira horrenbeste etorri; aldiz, Lakuntzatik jende asko etortzen ari da. Dena den, ez da egon hainbestearainoko gorakadarik, uhartearrak ez direlako aurreko urteetan bezainbeste etortzen. Igerilekuak ireki zirenean, lehendabiziko astean, soilik uhartearrak sartu ahal ziren, abonuak lehendabizi herritarrek egin zituzten. 200 abonu egin ziren. Hurrengo astetik aurrera kanpotarrendako ere zabaldu ziren, eta egun 280 abonu inguru daude.

6 Itsesi gune bikaina da. Igerilekuen ondoan autokarabanen parkinga dago, haurrentako parke ederra, Itsesi jatetxea, erretegi edo parrilla gunea... kanpoko jende asko etortzen da asteburu edo egun pasa?

Bai, bereziki asteburuetan. Gehienak bizkaitarrak dira, harrizkekoa. Gehienek esaten digute enteratu direla hau oso leku polita dela, lasaia, eta aprobeztatzen dute goizean goiz Beriaian mendira igotzeko eta igerilekuetan arratsalde pasa egiteko. Berriainek erakartzen die gehienbat.

7 Jendeak neurriak errespetatzen ditu?

Bai. Egia da umeei batzuetan ahaztu egiten zaizkiela, baina esaten zaie eta betetzen dituzte.

8 Jon, aurretik, Altsasuko Dantzalekuko igerilekuetan ibili zara sorosle. Alde handia dago Uharte Arakilgo igerilekuekin?

Dantzalekuan mugimendu gehiago dago, kontrolatzeko zailagoa da. Uharte Arakilgo igerilekuak oso lasaiak dira, eta lan egiteko leku oso ona. Tokia paregabea da, Beriaian azpian. Urkoren laguntzarekin jendea ezagutzen hasi naiz. Egia esan, langileok pozik gaude eta espero dut jendea ere gurekin pozik egotea.

9 Beraz, jendea lasai etorri daiteke Itsesi igerilekuetara aforoa bete arte.

Bai, orain arte ez da aforoa bete. Asteazkenean 100 pertsona inguru egoten dira, eta asteburuan, karabanetakoekin, 200 lagun pasa egon izan gara. Gehienek 222 lagun etorri izan dira. Asteburuan nabaritzen da, izugarri. Karabanetan etortzen direnekin ia 100 sarrera saltzen dira egun bakarrean. San Joan eguna ere nabarmentzekoa izan zen, 200 pertsonatik gora egon baitziren, gehienak uhartearrak eta lakuntzarrek.

10 Hortaz, karabanen gunea bete egiten da.

Gunean 12 autokarabana inguru sartzen dira, baina gunea bete egiten da askotan eta gunetik kanpo ere karabanak eta prestatutako furbonetak egoten dira. Gutxika, Uharte Arakilgo ezagunagoa egiten ari da eta jende asko etortzen ari da. Goizean mendira joan eta arratsaldean igerilekuetara, plan bikaina.

11 Noiz arte egongo dira zabalik igerilekuak aldaketarik egon ezean?

Urtero irailaren lehen igandean ixten dira; aurten ez dakigu egun zehatza noiz izango den, eguraldiaren arabera izango da.

gk
DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
 619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

**NEURRI BEREZIAK HARTU
 BEHAR DITUGUN GARAIOTAN...
 ESKA ITZAZU GOGOKO JAKIAK!**

Erabilera bakarreko mahai-zapietan begiratuta,
 QR kodeetan kontsulta eginez....

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe